| **5.2- BESTELAKO KONTRATAZIO PIZGARRIAK** | **1.539** | 0 | 0 | 1.539 | **1.375** | 0 | 0 | 1.375 | **1.466** | 0 | 0 | 1.466 | **4.380** | 0 | 0 | 4.380 |
| **5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA** | **186** | 0 | 0 | 186 | **180** | 0 | 0 | 180 | **203** | 0 | 0 | 203 | **569** | 0 | 0 | 569 |
| **6.1- RENOVE Etxebizitza** | **3.719** | 0 | 3.719 | 0 | **3.926** | 0 | 3.926 | 0 | **3.501** | 0 | 3.501 | 0 | **11.146** | 0 | 11.146 | 0 |
| **6.2- RENOVE Hezkuntza** | **285** | 0 | 285 | 0 | **370** | 0 | 370 | 0 | **397** | 0 | 397 | 0 | **1.051** | 0 | 1.051 | 0 |
| **6.3- RENOVE Osasuna** | **106** | 0 | 106 | 0 | **109** | 0 | 109 | 0 | **148** | 0 | 148 | 0 | **363** | 0 | 363 | 0 |
| **GUZTIRA** | **11.843** | **3.833** | **4.110** | **3.900** | **12.597** | **3.291** | **4.405** | **4.901** | **12.706** | **3.565** | **4.046** | **5.095** | **37.146** | **10.690** | **12.560** | **13.896** |

# Egiazko eragina MANTENDUTAKO ENPLEGUAN ekintza-programen arabera

| | Enplegua mantentzea 2014 (pertsonak) | | | | | Enplegua mantentzea 2015 (pertsonak) | | | | | Enplegua mantentzea 2016 (pertsonak) | | | | | Enplegua mantentzea 2014-2016 (pertsonak) | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasu-na eta kontsolida-zioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasu-na eta kontsolida-zioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasu-na eta kontsolida-zioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasu-na eta kontsolida-zioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea |
| **1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA** | **36.522** | 12.380 | 24.042 | 100 | 0 | **33.299** | 6.188 | 26.966 | 145 | 0 | **26.497** | 3.702 | 22.695 | 100 | 0 | **96.318** | 22.270 | 73.703 | 345 | 0 |
| **2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA** | **1.342** | 50 | 545 | 747 | 0 | **1.508** | 49 | 793 | 666 | 0 | **1.036** | 44 | 685 | 307 | 0 | **3.886** | 143 | 2.023 | 1.720 | 0 |
| **3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA** | **55** | 0 | 55 | 0 | 0 | **77** | 0 | 77 | 0 | 0 | **167** | 0 | 167 | 0 | 0 | **299** | 0 | 299 | 0 | 0 |
| **4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA** | **12.754** | 0 | 433 | 0 | 12.321 | **9.467** | 0 | 0 | 0 | 9.467 | **9.174** | 0 | 0 | 0 | 9.174 | **31.395** | 0 | 433 | 0 | 30.962 |
| **6- RENOVE BIRGAIKUNTZA** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| GUZTIRA | **50.673** | **12.430** | **25.075** | **847** | **12.321** | **44.351** | **6.237** | **27.836** | **811** | **9.467** | **36.874** | **3.746** | **23.547** | **407** | **9.174** | **131.898** | **22.413** | **76.458** | **2.065** | **30.962** |

# Egiazko eragina MANTENDUTAKO ENPLEGUAN ardatzen arabera

| | Enplegua mantentzea 2014 (pertsonak) | | | | | Enplegua mantentzea 2015 (pertsonak) | | | | | Enplegua mantentzea 2016 (pertsonak) | | | | | Enplegua mantentzea 2014-2016 (pertsonak) | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasu-na eta kontsolida-zioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasu-na eta kontsolida-zioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasu-na eta kontsolida-zioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasu-na eta kontsolida-zioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea |
| **1.1- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK ETA AUTONOMOAK FINANTZATZEA** | **12.480** | 12.380 | 0 | 100 | 0 | **6.333** | 6.188 | 0 | 145 | 0 | **3.802** | 3.702 | 0 | 100 | 0 | **22.615** | 22.270 | 0 | 345 | 0 |
| **1.2- TURISMOA ETA TOKIKO MERKATARITZA ETA ENPLEGUA** | **24.042** | 0 | 24.042 | 0 | 0 | **26.966** | 0 | 26.966 | 0 | 0 | **22.695** | 0 | 22.695 | 0 | 0 | **73.703** | 0 | 73.703 | 0 | 0 |
| **1.3- LEHEN SEKTOREA ETA ENPLEGUA GARATZEA** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **2.1- «EUSKADI, LURRALDE EKINTZAILEA». EUSKAL EKINTZAILETZA SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **2.2- AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILETZA LAGUNTZEA** | **1.292** | 0 | 545 | 747 | 0 | **1.459** | 0 | 793 | 666 | 0 | **992** | 0 | 685 | 307 | 0 | **3.743** | 0 | 2.023 | 1.720 | 0 |
| **2.3- ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK** | **50** | 50 | 0 | 0 | 0 | **49** | 49 | 0 | 0 | 0 | **44** | 44 | 0 | 0 | 0 | **143** | 143 | 0 | 0 | 0 |
| **3.1- GAZTEEN EKINTZAILETZA BABESTEA** | **55** | 0 | 55 | 0 | 0 | **77** | 0 | 77 | 0 | 0 | **167** | 0 | 167 | 0 | 0 | **299** | 0 | 299 | 0 | 0 |
| **3.2- HEZIKETA DUALA** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **3.3- LEHEN LAN ESPERIENTZIA** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **3.4- GAZTE TALENTUA** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |

| | Enplegua mantentzea 2014 (pertsonak) | | | | | Enplegua mantentzea 2015 (pertsonak) | | | | | Enplegua mantentzea 2016 (pertsonak) | | | | | Enplegua mantentzea 2014-2016 (pertsonak) | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasu-na eta kontsolida-zioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasu-na eta kontsolida-zioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasu-na eta kontsolida-zioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasu-na eta kontsolida-zioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea |
| **4.1- LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **4.2- LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **5.1- ENPLEGU PLANAK TOKIKO ETA ESKUALDEKO ESPARRUAN** | **433** | 0 | 433 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **433** | 0 | 433 | 0 | 0 |
| **5.2- BESTELAKO KONTRATAZIO PIZGARRIAK** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA** | **12.321** | 0 | 0 | 0 | 12.321 | **9.467** | 0 | 0 | 0 | 9.467 | **9.174** | 0 | 0 | 0 | 9.174 | **30.962** | 0 | 0 | 0 | 30.962 |
| **6.1- RENOVE Etxebizitza** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **6.2- RENOVE Hezkuntza** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **6.3- RENOVE Osasuna** | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **50.673** | **12.430** | **25.075** | **847** | **12.321** | **44.351** | **6.237** | **27.836** | **811** | **9.467** | **36.874** | **3.746** | **23.547** | **407** | **9.174** | **131.898** | **22.413** | **76.458** | **2.065** | **30.962** |

# Egiazko eragina ENPLEGAGARRITASUNAREN HAZKUNDEAN ekintza-programen arabera

| | Enplegagarritasuna handitzea 2014 (pertsonak) | | | Enplegagarritasuna handitzea 2015 (pertsonak) | | | Enplegagarritasuna handitzea 2016 (pertsonak) | | | Enplegagarritasuna handitzea 2014-2016 (pertsonak) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarri-tasun hazkundeak | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarri-tasun hazkundeak | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarri-tasun hazkundeak | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarri-tasun hazkundeak |
| **1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA** | **109** | 109 | 0 | **42** | 42 | 0 | **42** | 42 | 0 | **193** | 193 | 0 |
| **2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA** | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA** | **15.035** | 1.686 | 13.349 | **15.233** | 2.325 | 12.908 | **14.064** | 2.098 | 11.966 | **44.332** | 6.109 | 38.223 |
| **4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA** | **61.415** | 0 | 61.415 | **60.778** | 0 | 60.778 | **46.107** | 0 | 46.107 | **168.299** | 0 | 168.299 |
| **5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA** | **8.405** | 0 | 8.405 | **1.003** | 0 | 1.003 | **5.807** | 0 | 5.807 | **15.215** | 0 | 15.215 |
| **6- RENOVE BIRGAIKUNTZA** | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **84.964** | **1.795** | **83.169** | **77.056** | **2.367** | **74.689** | **66.020** | **2.140** | **63.880** | **228.040** | **6.302** | **221.737** |

# Egiazko eragina ENPLEGAGARRITASUNAREN HAZKUNDEAN ardatzen arabera

| | Enplegagarritasuna handitzea 2014 (pertsonak) | | | Enplegagarritasuna handitzea 2015 (pertsonak) | | | Enplegagarritasuna handitzea 2016 (pertsonak) | | | Enplegagarritasuna handitzea 2014-2016 (pertsonak) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarritasun hazkundeak | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarritasun hazkundeak | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarritasun hazkundeak | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarritasun hazkundeak |
| **1.1- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK ETA AUTONOMOAK FINANTZATZEA** | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **1.2- TURISMOA ETA TOKIKO MERKATARITZA ETA ENPLEGUA** | **31** | 31 | 0 | **26** | 26 | 0 | **26** | 26 | 0 | **83** | 83 | 0 |
| **1.3- LEHEN SEKTOREA ETA ENPLEGUA GARATZEA** | **78** | 78 | 0 | **16** | 16 | 0 | **16** | 16 | 0 | **110** | 110 | 0 |
| **2.1- «EUSKADI, LURRALDE EKINTZAILEA». EUSKAL EKINTZAILETZA SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA** | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **2.2- AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILETZA LAGUNTZEA** | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **2.3- ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK** | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **3.1- GAZTEEN EKINTZAILETZA BABESTEA** | **1.006** | 6 | 1.000 | **1.000** | 0 | 1.000 | **1.000** | 0 | 1.000 | **3.006** | 6 | 3.000 |
| **3.2- HEZIKETA DUALA** | **10.375** | 375 | 10.000 | **10.555** | 555 | 10.000 | **10.539** | 539 | 10.000 | **31.469** | 1.469 | 30.000 |
| **3.3- LEHEN LAN ESPERIENTZIA** | **3.120** | 836 | 2.284 | **3.175** | 1.290 | 1.885 | **2.003** | 1.059 | 944 | **8.298** | 3.185 | 5.113 |
| **3.4- GAZTE TALENTUA** | **534** | 469 | 65 | **503** | 480 | 23 | **522** | 500 | 22 | **1.559** | 1.449 | 110 |
| **4.1- LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA** | **14.318** | 0 | 14.318 | **16.855** | 0 | 16.855 | **20.301** | 0 | 20.301 | **51.473** | 0 | 51.473 |
| **4.2- LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA** | **47.097** | 0 | 47.097 | **43.923** | 0 | 43.923 | **25.806** | 0 | 25.806 | **116.826** | 0 | 116.826 |
| **5.1- ENPLEGU PLANAK TOKIKO ETA ESKUALDEKO ESPARRUAN** | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **5.2- BESTELAKO KONTRATAZIO PIZGARRIAK** | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **163** | 0 | 163 | **163** | 0 | 163 |
| **5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA** | **8.405** | 0 | 8.405 | **1.003** | 0 | 1.003 | **5.644** | 0 | 5.644 | **15.052** | 0 | 15.052 |
| **6.1- RENOVE Etxebizitza** | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **6.2- RENOVE Hezkuntza** | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **6.3- RENOVE Osasuna** | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 | **0** | 0 | 0 |
| **GUZTIRA** | **84.964** | **1.795** | **83.169** | **77.056** | **2.367** | **74.689** | **66.020** | **2.140** | **63.880** | **228.040** | **6.302** | **221.737** |

| | Beste eragin batzuk 2014 | | | Beste eragin batzuk 2015 | | | Beste eragin batzuk 2016 | | | Beste eragin batzuk 2014-2016 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Lanean diharduten enpresak | Enpresa sortu berriak | Etxebizitzak | Lanean diharduten enpresak | Enpresa sortu berriak | Etxebizitzak | Lanean diharduten enpresak | Enpresa sortu berriak | Etxebizitzak | Lanean diharduten enpresak | Enpresa sortu berriak | Etxebizitzak |
| 1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA | 3.835 | 85 | 0 | 2.790 | 65 | 0 | 2.722 | 68 | 0 | 9.347 | 218 | 0 |
| 2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA | 726 | 1.182 | 0 | 899 | 1.305 | 0 | 785 | 1.369 | 0 | 2.410 | 3.856 | 0 |
| 3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA | 55 | 343 | 0 | 77 | 344 | 0 | 158 | 500 | 0 | 290 | 1.187 | 0 |
| 4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA | 1.852 | 626 | 0 | 463 | 0 | 0 | 486 | 0 | 0 | 2.801 | 626 | 0 |
| 6- RENOVE BIRGAIKUNTZA | 0 | 0 | 12.755 | 0 | 0 | 13.060 | 0 | 0 | 13.101 | 0 | 0 | 38.916 |
| GUZTIRA | 6.468 | 2.236 | 12.755 | 4.229 | 1.714 | 13.060 | 4.151 | 1.937 | 13.101 | 14.848 | 5.887 | 38.916 |

| | Beste eragin batzuk 2014 | | | Beste eragin batzuk 2015 | | | Beste eragin batzuk 2016 | | | Beste eragin batzuk 2014-2016 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Lanean diharduten enpresak | Enpresa sortu berriak | Etxebizitzak | Lanean diharduten enpresak | Enpresa sortu berriak | Etxebizitzak | Lanean diharduten enpresak | Enpresa sortu berriak | Etxebizitzak | Lanean diharduten enpresak | Enpresa sortu berriak | Etxebizitzak |
| 1.1- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINAK ETA AUTONOMOAK FINANTZATZEA | 602 | 0 | 0 | 277 | 0 | 0 | 115 | 0 | 0 | 994 | 0 | 0 |
| 1.2- TURISMOA ETA TOKIKO MERKATARITZA ETA ENPLEGUA | 3.187 | 0 | 0 | 2.479 | 0 | 0 | 2.585 | 0 | 0 | 8.251 | 0 | 0 |
| 1.3- LEHEN SEKTOREA ETA ENPLEGUA GARATZEA | 46 | 85 | 0 | 34 | 65 | 0 | 22 | 68 | 0 | 102 | 218 | 0 |
| 2.1- «EUSKADI, LURRALDE EKINTZAILEA». EUSKAL EKINTZAILETZA SISTEMA SUSTATZEA ETA OPTIMIZATZEA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 2.2- AUTOENPLEGUA ETA MIKROEKINTZAILETZA LAGUNTZEA | 578 | 894 | 0 | 823 | 1.021 | 0 | 681 | 1.096 | 0 | 2.082 | 3.011 | 0 |
| 2.3- ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK | 148 | 288 | 0 | 76 | 284 | 0 | 104 | 273 | 0 | 328 | 845 | 0 |
| 3.1- GAZTEEN EKINTZAILETZA BABESTEA | 55 | 343 | 0 | 77 | 344 | 0 | 158 | 500 | 0 | 290 | 1.187 | 0 |
| 3.2- HEZIKETA DUALA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 3.3- LEHEN LAN ESPERIENTZIA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 3.4- GAZTE TALENTUA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 4.1- LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 4.2- LANDUNENTZAKO PRESTAKUNTZA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 5.1- ENPLEGU PLANAK TOKIKO ETA ESKUALDEKO ESPARRUAN | 361 | 626 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 361 | 626 | 0 |
| 5.2- BESTELAKO KONTRATAZIO PIZGARRIAK | 1.491 | 0 | 0 | 463 | 0 | 0 | 486 | 0 | 0 | 2.440 | 0 | 0 |
| 5.3- BAZTERTUTA GERATZEKO ARRISKUAN DAUDENAK GAITZEA ETA LANERATZEN LAGUNTZEA | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 6.1- RENOVE Etxebizitza | 0 | 0 | 12.755 | 0 | 0 | 13.060 | 0 | 0 | 13.101 | 0 | 0 | 38.916 |
| 6.2- RENOVE Hezkuntza | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| 6.3- RENOVE Osasuna | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| TOTAL | 6.468 | 2.236 | 12.755 | 4.229 | 1.714 | 13.060 | 4.151 | 1.937 | 13.101 | 14.848 | 5.887 | 38.916 |

## ENPLEGUAN izandako eraginaren eta BESTE ERAGIN BATZUEN ebaluazio orokorra

- 2014-2016ko Enplegu Planaren alorrean egindako ekimenak garatzeko eta gauzatzeko moduari esker, **aurreikusitakoa baino gehiago bete da sortutako enpleguan izandako eragina (% 116) eta ia-ia bete da enplegua mantentzean izandako eragina (% 98).** Enplegagarritasuna hobetzeari dagokionez, esperotako igoera aurreikusitakoaren gaineko % 64koa izan da.
- Enpresetan izandako eraginari dagokionez, enpresa berriak sortzeko aurreikusitako helburuaren % 74 bete da; eta dauden enpresei dagokienez, % 70. Etxebizitzak birgaitzean izandako eraginak aurreikuspenak gainditu ditu.
- Hurrengo orrialdeetan, aurreikusitako helburuekiko desbideratze nagusiak daude azalduta.

| | ENPLEGUAN IZANDAKO BENETAKO ERAGINA AURREIKUSITAKOAREN ALDEAN 2014-2016 | | | | | | | | | | | | Bestelakoak 2014-2016 (egiazko %-a aurreikusitakoaren aldean) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Enplegu-sorrera 2014-2016 (egiazko %-a aurreikusitakoaren aldea) | | | | Enpleguari eustea 2014-2016 (egiazko %-a aurreikusitakoaren aldea) | | | | | Enplegagarritasunaren hazkundea 2014-2016 (egiazko %-a aurreikusitakoaren aldea) | | | | | |
| | **Sortutako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen sorrera/ hazkundea | Birgaikuntza enplegua | Kontrata-ziorako pizgarriak | **Mantendu-tako enplegua, GUZTIRA** | Enpresen finantziazioa | ETEen lehiakortasuna eta kontsolidazioa hobetzea | Belaunaldi berriak eta transf. ekosoziala babestea | Enplegu Zentro Bereziak eta Gizarteratze Enpresak babestea | **Enplegaga-rritasunaren hazkundea, guztira** | Gazteen lehenengo lan-esperientzia | Bestelako enplegagarri-tasun hazkundeak | **Lanean dihardutén enpresak** | **Enpresa sortu berriak** | **Etxebizi-tzak** |
| **1- ETE-AK ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEA** | **%137** | %95 | - | (*) | **%96** | %34 | %212 | %77 | - | **%57** | %57 | - | %60 | %84 | - |
| **2- EKINTZAILETZA SUSTATZEA** | **%119** | %118 | - | %141 | **%98** | (*) | (*) | %43 | - | - | - | - | (*) | %137 | - |
| **3- GAZTEEN ENPLEGUA SUSTATZEA. GAZTEENTZAKO BERMEA** | **%140** | %86 | - | (*) | **-** | - | (*) | - | - | **%28** | %27 | %28 | (*) | %73 | - |
| **4- ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA** | **-** | - | - | - | **-** | - | - | - | - | **%94** | - | %94 | - | - | - |
| **5- ENPLEGU INKLUSIBOA. ENPLEGUAREKIKO ELKARTASUNA** | **%120** | %19 | - | %177 | **%103** | - | %9 | - | %121 | **%74** | - | %74 | %51 | %19 | - |
| **6- RENOVE BIRGAIKUNTZA** | **%106** | - | %106 | - | **-** | - | - | - | - | - | - | - | - | - | %104 |
| **GUZTIRA** | **%116** | **%82** | **%106** | **%195** | **%98** | **%35** | **%193** | **%47** | **%121** | **%64** | **%28** | **%66** | **%70** | **%74** | **%104** |

*Oharrak:*

- *«-» sinboloak adierazten du programa operatibo jakin bateko ekimenek ez dutela eragin bat lotuta, enplegua sortzeko, mantentzeko edo enplegagarritasuna areagotzeko bideen bitartez.*
- *(*) sinboloa aurreko adierazlearen salbuespenak jasotzeko erabiltzen da, izan daiteke egokitzapen bat egin delako helburuetan aurreikusi gabeko eraginaren sailkapenean (Lehen Aukera, Basque Fondo, Miniconnect) edo helburuetan aurreikusi gabeko eragin bat sortu duen ekimen berri bat delako (landa-eremuetako ekonomia dibertsifikatzeko laguntzak).*

## ENPLEGU SORRERAN IZANDAKO BENETAKO ERAGINA: aurreikusitakoaren % 116

- **Enpresak sortzearen eta haztearen** ondoriozko enplegu-sorrera **% 82koa izan da orokorrean**:
  - **Aurreikusitako enpleguaren % 95** lortu da **lehen mailako sektorera lotutako ekimenen bitartez**; horiek berrikusi egin dira 2014-2016 aldian zehar, 2020ko Landa Garapenerako Programa berrira egokitzeko.
  - Ekintzailetzari dagokionez, **ekintzailetza berritzailea** sustatzeko programek (Gauzatu Industria, Ekintzaile eta Gizarte Ekintzailetza) **aurreikusitako helburuak gainditu dituzte** enplegu sorkuntzari dagokionez. **Autoenplegua eta mikroekintzailetza sustatzeko** programen bidez sortutako eragina interpretatzeko, aintzat hartu behar da 2014-2016ko Enplegu Planaren helburuak zehaztu ziren unean, enplegua sustatzeko tokiko ekintzek (5. Programa. Enplegu Inklusiboa. Enpleguarekiko Elkartasuna) ekintzailetza sustatzeko lerro espezifikoa barne hartzen zutela, baina hori 2014an gauzatu zen bakarrik (aurreko orrialdeko taulan islatuta dagoen moduan, % 19an gauzatu zen); izan ere, 2015etik aurrera, Ekintzaileei Laguntzeko Programaren barruan sartu zen. Horregatik, bide horretatik sortutako enpleguaren balorazio orokorra urteko planen ebaluazioan oinarrituta egin behar da; eta horiek **aurreikusitakoa baino eragin pixka bat txikiagoa** izan dute. **Gazteen ekintzailetzari** dagokionez, **aurreikusitako helburuen % 86 lortu da**; eta Urrats Bat eta Gaztenpresa programak gailendu dira. Gainera, **Mikrokredituak** programaren gauzatze txikiagoa aipatu beharra dago; deialdi bakarra egin zen (2014) eta emaitzak aurreikusitakoak baino txikiagoak izan ziren.
- **Birgaitze-obrek** enpleguan izandako eraginari dagokionez, **aurreikuspenak bete egin dira**; izan ere, **% 106ra iritsi dira orokorrean**. Renove Etxebizitza programaren gauzatzeak (bai etxebizitza eta jabekideen erkidegoetako birgaitzeak bai hirigunearen birgaitzeak aintzat hartuta), aurreikusitako helburuak bete ditu. Era berean, osasun-zentroak birgaitzeko obrek aurreikusitakoa baino aurrekontu-exekuzio handiagoa izan dute, eta horrek enplegu sorrera handiagoa ekarri du. Hezkuntza-zentroak birgaitzeari dagokionez, ordea, obra batzuk hasteko edo amaitzeko atzerapenak egon dira; eta beraz, enplegu gutxiago sortu da (% 75).
- **Kontratazioko pizgarri zuzenek** enpleguaren sorreran izan duten eraginak **aurreikusitako helburuen % 195 bete ditu**:
  - **Bazterkeria arriskuan dauden taldeei laneratzen** laguntzeko programen bidez (desgaitasuna duten pertsonak kontratatzea) eta **enplegua sustatzeko tokiko ekintzen bidez** sortutako enpleguak **aurreikuspenak bete ditu** (aurretik adierazi den bezala, enplegua sustatzeko tokiko ekintzen irismenaren aldaketa aintzat hartu behar da emaitza errealak interpretatzeko. Horiek, kasu honetan, eragin handiagoa izan dute kontratazioko pizgarrien bidez; hori gertatu da ekintzailetzaren aldeko sustapena desagertu delako, baina programaren aurrekontuko diru-hornidurari eutsi zaiolako).
  - **Lan- eta familia-bizitza uztartzeko laguntzei** dagokienez, emaitzek islatzen dute helburuek aurreikuspenak gainditu dituztela; baina hori gertatu da hasierako unean eragin honen beheranzko balioespena egin zelako (urteko ebaluazioetan zuzendu zen). Benetako emaitzen arabera, **eragina aurreikuspenak baino txikiagoa da**, espero zena baino kontratazioko laguntzen eskari txikiagoa egon delako.

- Horrez gain, helburuak zehazteko unean aurreikusten ez zen beste eragin bat sortu da, enpleguaren sorrerari dagokiona. Eragin hori sortu da, hain zuzen, bi ekimen hauen ondorioz: batetik, **Landa Eremuen Garapenerako eta Dibertsifikazio Ekonomikorako Laguntzak** (2015ean jarri zen abian, 2020ko Landa Garapenerako Programa berrira egokitzeko aldaketen ondorioz), eta, bestetik, **Lehen Aukera programa** (programaren ikuspegi-aldaketaren ondorioz; izan ere, praktiketako kontratazioak ahalbidetzetik lan-kontratuak ahalbidetzera igaro zen).

## ENPLEGUEN MANTENTZEAN IZANDAKO BENETAKO ERAGINA: aurreikusitakoaren % 98

- **Enpresentzako finantziazioak** enpleguaren mantentzean izan duen eragina aurreikusitakoaren % **35ekoa** izan da. Eraginaren beherakada handia honako arrazoi hauengatik gertatu da: beherakada handia egon da ETEak eta autonomoak finantzatzeko laguntza-ekimenek mobilizatutako baliabide pribatuetan eta eskaera gutxiago egon da, batez ere ETEak eta Autonomoak Finantzatzeko Funts Osagarriari eta ETEen eta Autonomoen Finantzaketa Indartzeko Finantza Erakundeekin egin den Hitzarmenari dagokionez. Bestalde, Inbertsiorako Finantza Laguntzak (AFI) programak eta Bideratu programak eragin txikiagoa izan dute (2016an ez da AFI programarako deialdirik egin).
- **ETEen lehiakortasuna eta/edo finkapena hobetuz** enpleguan sortutako eraginak, **hasiera batean, bikoiztu egin ditu aurreikusitako helburuak** (% 193). Gorakada nabarmen horren arrazoi nagusia da **2015ean aldatu egin direla** elektronikaren, informazioaren eta komunikazioen teknologiak (EIKTak) ETEen lehiakortasuna areagotzeko tresna gisa erabiltzen has daitezela sustatzeko **programen irismena eta edukiak**. Industriak pisu handia izan du programa horietan eta, horrenbestez, aurreikusitako eragina nabarmen areagotu da, industria-enpresek sortzen duten enpleguaren kopurua handiagoa izaten baita beste sektore batzuek sortzen dutena baino.

  Kontuan hartu da, halaber, 30 urte edo gehiagoko pertsonei nahiz gazteagoei zuzendutako Ekintzaileei Laguntzeko Programaren barruan **enpresak finkatzen laguntzeko ildoak** sortu duen eragina (2. ekintza-programa: Ekintzailetza Sustatzea; eta 3. ekintza-programa: Gazteentzako Enplegua).
- **Ondorengotzak, belaunaldi-txandaketa eta enpresak ekonomia sozialeko enpresa bilakatzeko prozesuak** babestearen ondorioz, aurreikusitako helburuen **% 47ko eragina sortu da**. Enpleguaren arloko eragin hori txikiagoa izatearen arrazoi nagusia da belaunaldi-txandaketarako programa gutxiago erabili direla eta eskari txikiagoa izan dutela. Zailtasunak dituzten enpresak ekonomia sozialeko enpresa bilakatzen laguntzeko programaren bidez (bideragarritasun-azterketak), aztergai dugun aldirako aurreikusitako helburuen % 77 bete dira.
- **Enplegu Zentro Bereziei eta Laneratze Enpresei** emandako laguntzak aurreikusitako eragina baino handiagoa izan du enpleguan **(% 121)**.

## ENPLEGAGARRITASUNAREN GORAKADAN IZANDAKO BENETAKO ERAGINA: aurreikusitakoaren % 64

- **Lehenengo lan-esperientzia baten bidez gazteek izan duten enplegagarritasunaren hobekuntzaren emaitzak interpretatzeko, kontuan izan behar da 2014an Lehen Aukera programan izandako aldaketa.** 2014-2016ko Enplegu Planaren helburuak zehaztean, ekimen horretarako aurreikusitako eraginak lehenengo lan-esperientziaren ondoriozko aurreikusitako eraginaren % 83 hartzen zuen. Oinarri gisa programa abian jarri zen lehen urteko ikuspegia hartuta (praktiketako kontratuak egiteko laguntza), kalkulatzen da guztira 19.000 gaztek baliatu zutela 2014-2016 aldian. Alabaina, 2014. urtean programaren ikuspegia aldatu egin zen, gizarte-eragileek hala eskatuta, eta laneko kontratazioetarako laguntza ematen hasi zen. Ondorioz, helburuak aldatu behar izan ziren, urtean gutxi gorabehera 1.500 kontratazioetara igaroz (4.500 kontratazio aldi osorako).

  Hori dela eta, lehenengo lan-esperientziari loturiko emaitzen ebaluazioa egitean kontuan izan behar dira Urteko Enplegu Planei dagozkien ebaluazioak. Ebaluazio horietan ikusi da **lehenengo lan-esperientziaren esparruan izandako eragina aurreikusitakoa baino txikiagoa izan dela (gutxi gorabehera, % 65)**, eskaria txikiagoa izan delako honako ekimen hauetan: Lehen Aukera programan, txanda-kontratuak egiteko laguntzetan eta euskal enpresen kanpoko lantokietan gazteak kontratatzeko laguntzetan (2015ean ez zen azken horietarako deialdirik egin, horiek erregulatzen zituen araudia berrikusi zelako).

  Bestalde, **lanbide-heziketa dualerako Hezibi programak aurreikuspenak gainditu ditu**; hain zuzen ere, 1.200 gazteri aldizkako prestakuntza ematea aurreikusten zen, eta azkenean 1.469 izan dira. Aldi berean, gazteen talentuari bultzada emateko **BEINT nazioartekotzeko bekek eta Global Training bekek bete egin dituzte aurreikusitako helburuak**.

- **Enplegagarritasuna hobetzeko beste ekintza batzuk** gauzatzeko laguntzek ere aurreikusitako helburuen % **66 bete dituzte oro har**. Hala, langabetuei nahiz lanean ari direnei zuzendutako enplegurako prestakuntza-ekintzek ezarritako aurreikuspenak bete dituzte. Era berean, Deustuko Unibertsitateak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitateak eta Novia Salcedo Fundazioak lan-munduan sartzen laguntzeko asmoz gauzatutako ekintzek beren gaitasunak frogatzen eta enplegagarritasuna hobetzen lagundu diete hainbat gazteri, aldez aurretik ezarritako helburuak betez.

  Beheranzko desbideratzearen arrazoi nagusia izan da, aipatu bezala, aldatu egin dela lantokietako prestakuntza praktikoari zegokion aurrekontu-exekuzioa. Ekintza horren hasierako planteamenduarekin aurreikusten zen urtean 40.000 gazteri eragingo ziela, baina ikuspegi-aldaketaren ondoren, eraginaren aurreikuspenak egokitu egin ziren zegozkien Urteko Planen arabera, urtean 10.000 gazteri eragingo ziela aurreikusiz.

## BESTE ERAGIN BATZUK

- **Enpresa berrien sorreran izandako eragina aurreikuspenen % 74koa izan da.** Enpresa berritzaile berriei laguntzeko Gauzatu Industria, Ekintzaile eta Gizarte Ekonomiako Ekintzailetza programek aurrez ezarritako helburuak bete dituzte enpresa berriak sortzeari dagokionez. Era berean, ekintzailetzari laguntzeko Dema programaren (Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan egindakoa) eragina bat etorri da ezarritako aurreikuspenekin.

  Emaitza horiek orekatu egin dute nolabait gazteen ekintzailetzarako ekintzen eta landa-ekonomiaren arloko ekintzailetzarako laguntzen eragin txikia, baita Mikrokredituen Programak izan duen gauzatze urria ere (2014an bakarrik egin zen bertan parte hartzeko deialdia). Puntu honetan berriro aipatu behar dugu landa-ekonomiaren arloko laguntzak birkonfiguratu egin direla (2020ko Landa Garapenerako Programa berrira egokitzeko) eta Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzen irismena aldatu egin dela.

- **Lehendik zeuden enpresetan izandako eragina aurreikuspenen % 70ekoa izan da.** Eragin txikia izatearen arrazoia da, nagusiki, nabarmen murriztu direla ETEak eta autonomoak finantzatzeko laguntza-ekimenek mobilizatutako baliabideak. Beste alde batetik, ETEetan elektronikaren, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (EIKTak) txerta zitezela sustatzera bideratutako programen irismenean eta edukian sortutako aldaketen ondorioz, enpresa kopuru txikiagoari lagundu ahal izan zaio; hala ere, enpresa handiagoak izan dira (laguntza horietan pisu handia izan du industriak). Aldi berean, landa-ekonomiaren arloan, laguntzak birkonfiguratzearen ondorioz eragina txikiagoa izan da.

  Turismoaren eta merkataritzaren arloko enpresen lehiakortasuna hobetu egin da eta enpresa-proiektu berriak finkatzeko laguntza eman da 30 urte edo gehiagoko ekintzaileei laguntzeko programaren barnean, aurreikuspenekin bat etorriz. Hemen berriz aipatu behar dugu aldatu egin dela enplegua sustatzeko tokiko ekintzen irismena (hain zuzen ere, % 51ko gauzatzea egon da enplegu inklusiboari loturiko ekintzailetzaren finkapenari dagokion zatian).

- **Etxebizitzak** eta jabekideen erkidegoak **birgaitzeko** lanei dagokienez, bete egin dira aldez aurretik ezarritako helburuak (% **104)**. Renove Etxebizitza programaren aurrekontu-exekuzio orokorrak eragin zuzena izan du etxebizitzetako eraginarekin lotuta aurreikusitako helburuen betetze-mailan.

## 4.3. Genero-ikuspegitik egindako azterketa

- **Genero-ikuspegitik begiratuta, 2014-2016ko Enplegu Planaren barnean gauzatutako ekimenek izan duten eragin orokorra orekatua izan da oro har (% 52 gizonak eta % 48 emakumeak)**. Dena den, aldeak egon dira esparru edo programa jakin batzuetan; esaterako, gizon gehiagok parte hartu dute prestakuntza dualerako programan eta emakume gehiagok familia eta lana uztartzeko laguntzetan.

- Aipatu behar dugu genero-ikuspegitik egindako azterketa honek pertsonei bakarrik zuzendutako ekimenak izan dituela oinarri (bekak, kontratatzeko laguntza zuzenak, enplegu babesturako laguntzak, prestakuntza-ekintzak, ekintzailetzarako ekintzak…), datuak sexuen arabera bereizita eskuragarri zeuden kasuetan. Horrez gain, azterketak 2015. eta 2016. urteak hartzen ditu barne, 2014an ezin izan baitzen generoaren araberako azterketa egiteko informaziorik bildu.

- **Ekintzailetzaren** ikuspegitik, **gizonen eta emakumeen parte-hartzea orekatua izan da, oro har**, Ekintzaileei Laguntzeko Programan; alabaina, gizon gehiagok hartu dute parte (% 69) gizarte-ekintzailetzatan.

- **Gazteen enpleguaren** esparruan, zenbait alde ikusi dira, programen arabera. Hala, gazteen parte-hartzea orekatua izan da **gazteen ekintzailetza** sustatzeko programetan (esaterako, Gaztenpresan), baita **gazteen talentua** bultzatzea xede dutenetan ere (esaterako, nazioartekotzeko beketan edo Global Training beketan). Aldiz, prestakuntza dualean gizonezkoen parte-hartzea izan da nagusi **(% 78)**; baliteke horren arrazoia izatea Lanbide Heziketan gizon gehiago egoten direla eta prestakuntza duala industriaren esparruetara dagoela bideratuta nagusiki.

  Lehenengo lan-esperientziarako laguntzari dagokionez, emakumeen parte-hartzea nahiko txikia izan da zenbait programatan, hala nola Lehen Aukeran (% 30); beste programa batzuetan, ordea, **emakumeen presentzia handiagoa izan da**, esaterako, gazteei lan-munduan sartzen laguntzea xede duten **unibertsitateekiko eta Novia Salcedo fundazioarekiko hitzarmenetan (% 58)**.

- **Orientaziorako** programetan, **gizonen parte-hartzea emakumeena baino pixka bat handiagoa** izan da (% 55 gizonak eta % 45 emakumeak).

- Enplegurako prestakuntzari dagokionez, **langabezian dauden emakumeek enplegurako prestakuntzaren arloko ekintzetan izan duten parte-hartzea** (% 40), **oro har,** gizonena baino **pixka bat baxuagoa izan da** (% 60). Alabaina, gizonen eta emakumeen presentzia orekatua izan da kontratatzeko konpromisodun prestakuntzaren programan eta lanean ari direnentzako prestakuntza-ekintzetan.

- **Lan- eta familia-bizitza uztartzeko** laguntzetan **emakumeen presentzia izan da nagusi** (% 95). Horrek agerian uzten du tradizionalki emakumeek baliatzen dituztela halako tresnak.

- **Lan-munduan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzako** trebakuntza- eta laguntza-programei dagokienez, **emakume eta gizonen parte-hartzea orekatua izan da oro har**; dena den, gizon gehiago egon dira Enplegu Zentro Berezietan (% 65), eta parte-hartze handiagoa izan dute desgaitasuna duten pertsonak kontratatzen laguntzeko ekintzetan (% 57). Laneratze-enpresetan, ordea, parte-hartzea orekatua izan da (% 52).



# 5. 2014-2016ko ENPLEGU PLANAREN BALANTZE OROKORRA

- 2014-2016ko Enplegu Plana **enpleguaren aldeko talka-plan** gisa egin zen, X. legealdiko Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromisoari erantzuteko. Konpromiso horren arabera, lehentasun gisa ezartzen zen lehendik zegoen enplegua defendatzea eta enplegu berriak sortzeko beharrezko baldintza eta estimuluak sortzea. Erantzun azkarra eman edo talka-planaren izaera eman nahi zitzaionez, zehaztutako plana operatiboa izan zen nagusiki; horregatik, bertako neurriak zehatzak eta errealistak dira, eta berehala neurtzeko moduko eragina dute.

- Eusko Jaurlaritzak 2014-2016ko Enplegu Plana abian jartzeko kalkulatutako aurrekontua 775 milioi eurokoa izan da, eta horri finantziazioaren eta inbertsio pribatuaren arloko beste 1.566 milioi euroko mobilizazio gehigarria gehitu behar zaio; horrenbestez, aldi honetarako aurreikusitako bitartekoak 2.341 milioi eurokoak ziren guztira. **Planaren exekuzio errealerako Eusko Jaurlaritzak aurreikusitako finantziazioaren % 85 erabili da, hots, 661 milioi euro; eta aurreikusitako baliabide pribatuen % 58 mobilizatu dira, alegia, 910 milioi euro. Horrek esan nahi du guztira 1.571 milioiko baliabide publiko eta pribatuak erabili direla 2014-2016 aldian, eta horiei esker Urteko Ekintza Planetan aurreikusitako 92 ekimenetatik 87 gauzatu dira (aurreikusitako ekimenen % 95)**.

- 2014-2016ko Enplegu Planaren bidez espero zen 32.000 enplegu sustatzea, 134.600 enpleguri eusteko laguntza ematea eta 23.000 gazteri beren lehenengo lan-esperientzia izateko aukera ematea. Urteko Ekintza Planen bidez abian jarritako ekimenen garapen- eta exekuzio-mailari esker, **sortutako enpleguan izandako eragina aurreikusitakoa baino handiagoa izan da (% 116) eta ia osorik bete da enpleguari bere horretan eusteko aurreikuspena (% 98); hain zuzen ere, 37.146 enplegu sortu dira eta bere horretan eutsi zaie 131.898 enpleguri**.

- Gazteentzako lehenengo lan-esperientziarako laguntzari dagokionez, lehen balorazioak adierazten du aurreikusitako gauzatze-emaitzen % 28 lortu direla; alabaina, kontuan izan behar da Lehen Aukera programaren ikuspegian eta planteamenduan egon den aldaketa. Horrek nolabait desitxuratu egin du lehen balantze orokor hau, eta Urteko Ekintza Planen banakako ebaluazioetara jo beharko dugu ikuspegi errealagoa izateko. Hain zuzen ere, **6.302 gazteri lagundu zaie beren lehenengo lan-esperientzia** izaten, **alegia aurreikusitakoen % 65i** (ikusi 57. orrialdea puntu honi buruzko xehetasun gehiago izateko).

- Orokorrean esan daiteke, **oraindik egitekorik badago ere, 2014-2016ko Enplegu Planak enplegua sustatzen lagundu duela**, eta lan-munduan sartzen lagundu diela zailtasun handienak dituztenei, bereziki gazteei. Horrez gain, ETEak eta ekintzailetza babestu ditu, enpleguan eragin zuzena duten obra eta proiektuetarako inbertsio pribatua aktibatzen lagundu du eta enpleguaren arlora bideratutako erakundeen laguntza eta lankidetza publiko-pribatua sustatu ditu. Bestalde, **neurri estrategiko eta kualitatiboagoak garatzeko beharra** hauteman da, enpleguaren esparruko politika berrien orientabide izan daitezen.



- Aurreko orrialdean aurreratu dugun moduan, 2014-2016ko Enplegu Plana operatiboa izan da nagusiki (“talka-plana”); horrenbestez, beharrezkotzat jotzen dugu **enpleguaren dimentsio estrategikoago bat agerian utziko duten alderdi kualitatiboak azpimarratzea**, datozen urteetan Euskadiko enplegu-politiken arloan jarraitu beharreko orientabide edo jarraibideak jasoz.

- Ildo horretan, **2020rako Enpleguaren Euskal Estrategiak**, 2016ko uztailean amaitutako enpleguari buruzko hausnarketa- eta adostasun-prozesu gisa, 2020rako enplegu-politika jakin batzuk ezartzeko oinarri partekatuak zehaztu zituen, betiere enplegua garapen pertsonalaren, gizarte-kohesioaren, garapen ekonomikoaren eta aberastasun-sorreraren elementu nagusi gisa hartuta, gizarte lehiakorra eta sozialki aurreratua lortzeko bidean.

- 2014-2016ko Enplegu Planaren balantzetik ondoriozta dezakegu, **etorkizuneko Enplegu Planari** begira, **dagoeneko identifikatuta dituen esparru nagusietan aurrera egiten jarraitzeaz gain** (ETEak eta Tokiko Garapena, Ekintzailetza, Gazteentzako Enplegua, Enplegurako Prestakuntza, Enplegu Inklusiboa eta Renove Birgaikuntza), **beste esparru kualitatiboago batzuk ere sartu behar direla, hala nola enpleguaren kalitatearen eta Euskal Enplegu Sistemaren hobekuntza.**

- Alde batetik, kalitate handiagoko enplegua eskainiko duen lan-merkatu baten alde egiteko beharra hauteman da; horretarako, behin-behinekotasuna eta lanaldi partzialak murriztu behar dira, eta adostasuna eta lankidetza oinarri dituzten lan-harremanak babestu. Bestalde, egiaztatu da zerbitzu baliodunak emango dituen Enplegu Sistema bat behar dela, enpleguaren esparruan eragina duten politika guztiak barne hartuko dituena eta bai pertsonen bai enpresen beharrei erantzuteko zerbitzuak emango dituena. Etorkizuneko planean sartu behar da, halaber, **enplegu publikoari** dagokion esparrua. Enplegu publikoa finkatu egin behar da, administrazio publikoen berriztapenaren plangintza egoki bat oinarri hartuta, eta bertako belaunaldi-txandaketak ekarriko dituen aukerak aprobetxatu behar dira (bereziki gazteek), betiere gardentasunaren eta aukera-berdintasunaren printzipioak errespetatuz.

- Laburbilduz, **etorkizuneko Enplegu Planak uztartu behar lituzke, batetik, ikuspegi estrategiko eta kualitatiboa, eta, bestetik, enpleguaren arloko neurri zehatzak, hiru alderdi hauetan aurrera egitea ahalbidetuko dutenak: enplegu gehiago, enplegu hobea eta pertsona guztiei aukera ematen dien lan-merkatu bat**.